




Irakurteka

Gure kafetegi tematikoan lasaitasuna izango da nagusi eta kolore epel eta naturalak erabiliko ditugu. Gustura eta goxo egoteko giroa sortuko dugu, beraz. Bestalde, kilometro 0-ko lehengaiak erabili eta sustatuko ditugu, bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko asmoz.

Hori guztia dela eta, gure negozioaren balio proposamena **berritasuna** da. Izan ere, gure negozioa Tolosan kokatuta egongo da eta bertan ez dago gure negozioak eskaintzen dituen ezaugarriak dauzkan negozioirik. Nahiz eta Tolosan liburutegia badagoen, eta beste zerbitzu bat eskaintzen duten kafetegiak badauden, ez dago bi eskaintza hauek konbinatzen dituen negozioirik.



Irakurteka